Mia Rissanen
Itzultzailea eta artisaua

Hogei urtetik gora daramatza Mia Rissanen finlandiarrak Euskal Herrian bizitzen. «Arroartuta» dagoela dio berak, eta gustuko duela bizi den tokia.

«Hemen familia zentzu zabalean hartzen da»

XABIER OTAMENDI

Xabier Otamendi

Arroa Behean bizi da Mia Rissanen, nahiz eta Helsinkin jaioa den. Senarra Finlandian ezagutu zuen, eta han hiru urte igaro ondoren, Eskal Herrira etorri ziren tokia ezagutzera. Bigarren haurra izan zutenean behin betiko bertan gelditzea hartu zuten. Artisaua eta itzultzailea da Rissanen, eta Arroa inguruan pasiatzen, bere bizipenen berri eman dio HITZA-ri.

Noiz eta nolatan etorri zinen hona?

Euskal Herriaren berri Josebaren —senarra— bitartez izan nuen. Finlandian ezagutu nuen; han hiru urte pasa zituen. Bere egonaldiaren hasieran ezagutu genuen elkar, eta harremana sortu zelako han gelditu zen beste piska batean, nire herrialdea, familia zein hizkuntza ezagutzeko. Hiru urte elkarrekin pasa genituen, eta 1990ean beste aldekoen txanda iritsi zen; hona proba moduan etortzekoa. Nik nahi nuen, noski; bere herrialdea zen. Herrialdea beti da pertsona baten izaeraren zati handi bat, hizkuntza eta familia bat. Urtebeterako etorri ginen probatzera. Bitartean alaba jaio zen, bigarren urtea hasi zen, hirugarena hasi zen, eta hemen gelditzea erabaki genuen. Bi seme-alaba ere baikenituen ordurako.

Bigarrena jaio zenean erabaki al zenuten hemen gelditzea?

Hor nonbait, bai. Seme edo alaba txiki batekin mugitzea errazagoa izaten da, baina birekin, eta behin eskolara hasita daudela... Seme-alabak bere ingurunea eraikitzen hasten direnean, zailago da aldatzen hastea. Ordurako gainera ni hona eginda nengoen. Eta euskara segituan hasi nintzen ikasten.

Etorri orduko hasi al zinen?

Ez, aurretik ikastaro txiki bat egin nuen Finlandian. Pentsa, han ere euskarazko klaseak ematen dira. Beste hizkuntza txiki bat delako, finlandiera, finesa. Jaio orduko jakiten dugu gure herrialdetik atera nahi baldin badugu hizkuntzak jakin behar ditugula. Hemen ere hala da; ez da gaztelania edo ingeles hiztunekin bezala. «Mundu berri bat ezagutuko dut» esan eta listo, gure hizkuntzarekin ezin da hori egin. Guretzat naturala da hizkuntzak erakutsi eta ikastea. Hona etorri nintzenean AEKko eskoletara apuntatu nintzen. Finlandiako ikastaro hark ez zidan balio izan hizkuntza menperatzeko. Baina piska bat

> «Euskarak ez zuen zerikusirik nik ordura arte ezagutzen nituen hizkuntzekin»

> «Jendea nire babesgunean sartzen zela iruditzen zitzaidan hasieran»

ezagutzeko balio izan zidan. «Ze hizkuntza ezberdina». Hori izan nuen lehen sentipena. *Kaixo* hitzak, adibidez, idazteko bost letra zituen, eta ez zuen zerikusirik nik ordura arte ezagutzen nuen inongo hizkuntzarekin.

Zenbat hizkuntza dakizkizu?

Finesa, etxeko hizkuntza; Finlandiako bigarren hizkuntza ofiziala, suediera, derrigor ikasi behar izaten genuen. Askotan gogoz kontra, neure inguruan ez nuen hiztunik, nire ingurua finlandiarra zen erabat. Gero konturatu nintzen danesa ikastea onura zela. Ingelesa ere hitz egiten dut, eta eskolan frantsesa, alemaniera ere eman nituen. Polonian egonaldi pare bat egin ditut eta hori ere dezente ikasita daukat. Euskaraz ere bai, jakina.

Seme alabei nola hitz egiten diezu?

Nik beti finlandieraz. Eta haiek niri euskaraz, gehienbat. Orain, nagusiak direla, hasi dira euren kabuz euskaraz erantzun beharrean finlandieraz erantzuten saiatzen. Ikusten eta eskertzen da esfortzu hori. Haiek ere konturatzen dira Finlandiara joatean abantaila handia daukatela, hitz egitean jariotasuna izanda.

Zein lan egiten duzu?

Artisau lanak egiten ditut, ehungailuarekin. Batzuetan azokara joaten naiz. Orain garai txarra da eskulanak saltzeko. Urteetan egin dudan beste lan bat itzulpengintza izan da.

Zer itzuli duzu?

Finlandieratik gaztelaniara edo alderantziz; adibidez, itzulpen teknikoak, instrukzio liburuak... Azkena literatur lan bat euskaratzea izan da. Sofi Oksanen idazle finlandiar gaztearen *Garbiketa*. Oraintxe atera da. Gizona eta bion artean nahiko lan polita egin dugu.

Gizonarekin ere finlandieraz hitz egiten al duzu?

Bai. Berak nire hizkuntza ikasi zuen. Hasierako urteetan, gure arteko tratua, bakoitzak bestearen hizkuntza ikasteko ahalegina egitea zen, eta gero, biziko ginen herrian bestearen hikuntza erabiliko genuela. Hortaz, bion artean finlandieraz egiten dugu. Hasieran garrantzitsua zen niretzat, etxeko pareten artean gutxienez nire hizkuntza hitz egitea.

Zer moduzkoa izan zen integrazio prozesua?

Ez zen zaila izan. Hasieratik seme-alaba gazteekin kalean ibilita, beste gurasoekin harremandu nintzen. Baina izaera ezberdintasuna nabaritzen nuen garai hartan. Finlandiar bezala, nahiko isilkorra naiz, eta hemen ez nuen ni bezalakorik aurkitzen, kontrakoa baizik. Hasierako urteetan harritu egiten ninduen, jendea bestaldeko espaloitik builaka kaso egiten hasteak. Horretara ez nengoen ohituta; gure kulturan ez da egiten. Orain ohitu naiz, eta gustukoa dut. Alde horretatik gizatiarragoa da hemengoa Finlandiako kaleko bizitza baino.

Ondo sentitzen naiz Arroan, etxekotzat naukate; bertakoek ez naute atzerritarra sentiarazten. Hemen arroarra naiz.

Euskaldunok itxi sona dugu.

[Kar kar]. Europako hegoaldekoekin alderatuta itxiak izango zarete agian, baina Europako ipar puntako biztanleekin alderatuta, inola ere ez. Finlandiarrek sorpresa hartzen dute hona etortzen direnean. Hurbiltasun fisikoak ere talka sortzen du. Bi pertsonen arteko ekarrizketan, hemen 40 zentimetrora jartzen dira hitz egiteko; han ez, han metro batera gelditzen da. Modu berean hitz egiten da, baina urrutiagotik. Babes guneari dagokio. Agian gogorra irudituko zaizu hau entzutea, baina jendea nire babesgunera sartzen zela iruditzen zitzaidan.

> «Bi herri txiki, bi nazio txiki gara; beraz, bada horrelako anaitasun sentimentua»

> «Publikoak beti ez du bereizten eskuz egindakoa den edo fabrikako produktua»

Orain ohitu naiz, eta gustuko dut hemengoa. Hara joaten naizenean konturatzen naiz ezin ditudala kode berak erabili.

Artisau lanetan ibiltzen zarela diozu. Zer lantzen duzu?

Oihalgintza egiten dut asko. Finlandian gehiago ikusten da hemen baino. Hemen ehungileak gero eta gutxiago dira. Seguruenik nire lanak finlandiar lanaren itxura dauka gehiago. Artilezko lepokoak edo linuzko fularrak, trapuzko alfonbrak, etxerako oihalak edo janzteko oihalak egiten ditut bereziki. Eskulangintza azoketan saltzen ditut nik egindako gaiak.

Artisautza saltzeko garai txarra al da?

Bai. Edozein azokatan ezin da postua jarri, gainera. Ezin duzu saldu 40 euro balio duen eskuz egindako bufanda bat, alboan inportazioko sei euroko antzeko bat baldin badaukazu, eskulana ez izan arren. Publikoak beti ez du bereizten bata eskulangile batek egina dena, eta bestea fabrikan egindakoa.

Finlandiarrek ezagutzen al dute Euskal Herriko egoera?

Bai, dezente gainera. Bi herrialdeek dute elkarren arteko interesa, herri txikia garelako, nazio txikiak garelako, eta hizkuntza txikiak ditugulako. Bada horrelako anaitasun sentimentua.

Eta euskaldunek ezagutzen al dute Finlandia?

Azken urteetan joera handi xamarra dago hara biadaiak egiteko. Finlandiaz galdezka etortzen zait jendea. Hura ederra dela esaten dute, gainera. Nire ustez hau ere ederrra da.

Zein da zure ustez bi herrialdeen arteko alde nabarmenena?

Familia konzteptua, esango nuke. Hemen familia zentzu zabalean hartzen da. Familian elkartzea 25 pertsona izan liteke. Nere herrian hemen nukleoa esaten denari deitzen zaio familia: gurasoak eta seme alabak osatutakoari. Aiton-amonak ere ez dira familia kontzeptuan sartzen; familikoak dira bai, eta aiton-amonak bilobekin harremantzea saiatzen gara, baina askoz ohikoagoa da seme-alabak gurasoengandik ehunka kilometrora bizitzea.